



Eneko Leyun

“Desgaitasunaren eta eskiaren mundua deskubrimendu bat izan da”

Orain arte desgaituak ez diren pertsonekin lehiatu da Uharteko Ipar Eski Taldeko Eneko Leyun eskiatzailea (Iruñea, 1998). 2024-2025 denboraldian, lehenengo aldiz parte hartu du Adimen Urritasuna duten Pertsonentzako Iraupeneko Eskiko Espainiako Txapelketan. Urrezko dominarekin itzuli da etxera.

 OLAIA L. GARAIALDE

Hiru edo lau urterekin jantzi zituena iraupeneko eskiak Eneko Leyunek. Orduetik, amarekin eta lagun batekin Somportera (Okzitaniako Pirinioak) joateko ohitura hartu, eta gutxinaka ikastaroak egiten hasi zen. Hamabi urte inguru zituelarik, Uharteko Ipar Eski Taldean sartu eta lehiatzen hasi zen. Otsailaren 16an, Larra-Belaguako pistetan, Adimen Urritasuna duten Pertsonentzako Iraupeneko Eskiko Espainiako Txapelketa irabazi zuen. Zazpi minutu eta erditik gorako aldearekin irabazi ere: “Oso harro eta pozik nago, hodei batean bezala”.

Orain arte desgaituak ez diren pertsonekin lehiatu da, ez zekielako desgaituak direnentzako txapelketak ere badirela. Horregatik, txapelketa ospatzen den zazpigarren urtea den arren, Leyunek lehenengo aldiz parte hartu du: “Taldekide baten ahizpa desgaitua da, eta bere amak erakutsi zigun

“Kirolean ikusgaitasun handiagoa eman behar zaio desgaitasunari. Oso gai gara gauza asko egiteko”

desgaitasunaren mundu hau. Esan zigun ongi moldatuko nintzela. Desgaitasunaren eta eskiaren mundua deskubrimendu bat eta oso berri ona izan da”. Orain arte, horrelako txapelketaren berririk ez izatea, desgaitasunaren eta kirolaren inguruan dagoen desinformazioarengatik dela uste du: “Kirolean ikusgaitasun handiagoa eman behar zaio desgaitasunari. Oso gai gara gauza asko egiteko”.

Nabarmendu du urrezko domina lortu izanak ate berriak ireki eta gauza “positibo” ugari ekarri dizkiola: “FED-DIkoek [Adimen Ezintasuna duten Pertsonentzako Kirolen Espainiako Federazioa] esan zidaten asko gustatzen zaiela nola eskiatzen dudana, Nafarroa mailan onena naizela eta munduko txapelketan parte hartzeko aukera izanena dudala”.

Pertsona desgaituekin zein desgaituak ez direnekin lehiatzen da Leyun eta batetik bestera alde “handia” dagoela dio: “Desgaitasunik gabekoen kontra lehiatzen nuenean, gehiago kostatzen zitzaidan ibilbidea ulertzea, eta gauzak bi edo hiru aldiz azaldu behar zizkidaten”. Hori dela-eta, txapelketen aurretik behin eta berriz erreparatzen du ibilbidea, eta bidegurutzak eta bihur-guneak non dauden ongi aztertzen du.

Desgaituak ez direnekin lehiatzen jarraitzen du, pertsona desgaituentzako txapelketa gutxiago daudelako.

Martxoaren 8an eta 9an izan ziren Nafarroako eta Euskadiko iraupen eskiko txapelketak, eta hirugarren gelditu zen klasikoko modalitatean. Hala ere, “gusturago” sentitzen da desgaituak diren pertsonekin: “Ez daukat ezer desgaitasunik gabeko pertsonekin lehiatzearen kontra, baina ezberdintasuna handia da”.

DISTANTZIA MOTZETAN

Leyun distantzia luzeetan entrena-tzera ohituta dago eta egin ohi di-tuenak baino distantzia motzagoak izaten dira desgaitu intelektualen-tzako txapelketetakoak: “Distan-tzia motzetan gusturago sentitzen naiz”. Hala ere, uste du distantzia luzeek gehiago trebatzen lagundu diotela. Bere amak eskiarekiko duen harremanean izan duen eragina ere azpimarratu du: “Amak piztu zidan eskiarekiko grina. Amari esker eza-gutu ditut eskiaren mundua, natura, mendia eta elurra”.

Leyunek bukatutzat eman du aur-tengo denboraldia, eta 2025-2026ko denboraldian ikusiko du zer-nolako aukerak dituen. Hala ere, ez ditu en-trenamenduak albo batera utziko. Elurrak iraun bitartean, eskiatzen jarraituko du. Horrez gain, aste bar-ruan zein elurrik ez dagoenean, rolleskian aritzen da. Iraupen eskiaren antzekoa da, baina elurrik gabe eta errepedean praktikatzen da. Horretar-ako, gurpilak dituzten eski moduko batzuk erabiltzen dira. Rolleskiak, es-kiak ez bezala, oso motzak eta meta-lezkoak dira: “Elurra mila aldiz gehia-go nahiago dut”. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Bihotza.
Sentimenduak
daudelako”.



LEYUNEK UTZIA